

Proiektuarekin hasi baino lehen gure burua aurkeztea baliogarria izango dela pentsatu dugu. Itziar Pérez, Nahia Gonzalez de Audikana, Ainara Tornavacas, Claudia Taboada eta Izaro Arizti gara, Olabide Ikastolako batxillergo 1 -eko ikasleak. Proiektu hau aurkeztu ziguten unean pixkat zaila ikusi izan genuen baina denborarekin eta bakoitzak dituen indarguneak eta puntu- ahulak ikusita proiektu interesgarri bat jaio delakoan gaude. Gaur egun gure gizartea aldatzen joan da eta uste dugu hainbat gauza ere eboluzio handi bat behar dutela. Horregatik produktu konkretu batean foku egiteak denbora asko eraman zigun. Hainbat saio-ren ostean guztiak ile luzea daukagunez konturatu ginen ile-lehorgailuak ez direla batere erosoak, beraz bakoitzak nola izango litzateke gure ametsetako lehorgailua pentsatzen hasi ginen.

Nahiz eta jende askok uste dezakeen proiektu hori alferrikakoa izan daitekeela eta bakarrik 16 urteko neska talde batek egin duen tontakeria bat dela , guk ziur gaude etorkizun hurbil batean produktu honek gure egunerokotasunaren parte izan zitekeela.

Urteen poderioz , gure gizartea ile-lehorgailuen egitura eta funtzionamendua hobetzen joan da. Lehenengo ile- lehorgailua 1890ean Frantzia agertu zen. Sortzailea Alexandre Godefroy izan zen. Berez, lehen prototipo hori xurgagailu bat zen baina alderantziz moldatuta. Urte batzuk geroago, Godefroyk egin zuena sarrerako tutua kendu eta aire beroaren irteeran jarri zuen. Horrela ile-lehorgailu elektrikoa sortu zuen. Lehenengo prototipo horiek ez zuten aire asko sortzen eta nahiko astunak ziren baina berehala modan jarri ziren eta horrek prototipo berriak sortzeko ikerkuntza indartu zuen.



Gehienetan gutako askok ez diogu garrantzi handirik ematen ile-lehorgailu bat erosterako orduan. Zertarako erosiko dugu bat 300 eurokoa beste bat 50 eurotan baldin badugu? Ba guztiz okertuta gaude, ile-lehorgailu txar edo merke bat erosteak kalte asko ekar ditzazke gure ilerako. Alde batetik zure ilea erreztasun handiago batekin erre dezake. Bestalde, txinpartak egotea errazagoa izan ohi da. Oraingo lehorgailuekin nahiz eta garestiak izan, haiekin arriskuen prebentzioa lortzen da : atxikimendu ergonomikoa, berokuntza termikoa segurtasun sistema, anti-irristagaitza heldulekua saihesteko ... Gure burua erretzea edo gure ilea kaltetzea arriskuan jartzen ez dugu.

Gure proiektuaren izenburua “ Hear - dryer” izatea erabaki dugu. Zerbait originala egin nahi genuen eta ondorioz baieztatu genuen lehorgailu hitza ingelesez “hair

dryer” zela . Ondorioz bueltak eta bueltak ematen buruari konturatu ginen gure produktuan entzungo den bakarra musika denez “hear” aurrizki bezala eranstea ideia hona izango zela eta hori da egin genuena, eta dryer zegoen moduan utzi genuen. Ondorioz, “hear”+ “dryer” elkarketatik Hear- dryer lortu genuen. Gure helburu nagusia besteekiko erosotasunean oinarritzen da.

Horregatik produktuak hainbat aldaketa nagusi ditu. Hasteko, zuetako zenbatek ez duzue noizbait pentsatu lehorgailuak zarata sortze horrek gogaikarria dela? Suposatzen dugu zuetako askok, beraz gure kasuan, soinua musikan bihurtzen duen ile-lehorgailua dugu eta horretarako bluethooth-a darama txertatuta. Honez gain, ilea lehortzen dugun bitartean ezinezkoa da guk nahi dugun beste mugitzea kablearen erruz, eta horri konponbide erraz bat emateko, kablerik gabekoa ere da. Kablerik ez eukitzean bere kargatzeko modua zeharo ezberdina da, mugimenduarekin eta argiarekin kargatzen den bateria erauzgarria daukana, 3h kargatuta irauten duena eta 30 minutuko denboraldi laburra erabiltzen du berriro %100eko kargan egoteko. Hau guztia gutxi balitz, gaur egungo gizarteak zeharo kontzientea da kutsadurarekiko beraz, ekologikoki jasangarriagoa egiteko, plastiko birziklatuaz eginda dago.